



ETXALDEKO
EMAKUMEAK



Euskal Herriko mugimendu feministak
zaintza sistemaren inguruan egindako
hausnarketa eta proposamenei
EKARPENAK

Etxaldeko Emakumeak gara, elikadura burujabetzaren alde gauden emakume* baserriar feministak. Euskal Herriko mugimendu feministak zaintza sistemaren inguruan egindako hausnarketa eta proposamenei gure ekarpena egin nahiko genioke.

Gure ikuspegitik, zaintza pertsonak zaintzea baino gehiago da. Gure ustez, lurra, haziak, ura, abereak, lurraldeak eta ondasun komunalak ere zainduko dituen sistema bat behar dugu; ikuspegi holistikoa da gurea. Zaintza elikatzetik ere badator eta ezin dugu zaintza sistema bat antolatu arinago elikadura osasuntsua erdigunean jarriko duen sistema bat antolaturik ez baldin badago.

Ulertu behar dugu kapitala eta agroindustriaren kontrako borroka oso handia eta basatia dela, eta emakume baserriarrek oso gutxi gabela horri guztiari aurre egiteko, beraz, bidelagun gara. Gainera, elikadura sistema ez da ekoizpenera eta eraldaketara mugatzen. Banaketa, kontsumoa, erosketa publikoak eta etxeak barneratzen dituen sistema oso bat da. Denok egunero jaten dugu eta ikuspegi global eta holistiko batetik ulertu behar dugu gaia.

Hori dela eta, guretzat bi oinarrizko ideai daude gaiarekin zerikusia dutenak:

1. Elikadura osasuntsua zaintza sistemaren barruan txertatua egon beharko lukeela.
2. Zaintza ez dela bakarrik pertsonari zuzendua egon behar. Lur barik, hazi barik, ur barik, animalia barik ez dago bizitza posiblelerik.

Bestalde, zuen proposamenekin gaika jarraituz ere antolatu ditugu gure proposamenak:

1. KOLEKTIBIZATU

- Baserriaren eta hiriaren arteko zubiak eraiki.
- Landa eremuko herri txikietan zantzari dagozkien zerbitzu publikoak behar ditugu.
- Auzolanean bizitzeko baldintzak sortu behar ditugu.
- Baserriaren erritmoa kontuan edukiko duen espazioak sortu behar ditugu.

2. PROFESIONALIZATZEA

- Soldata duinak behar ditugu, 1.400 euroko diru sarrerak bermatu.
- Zaintza lanak egiteagatik eta baserriaren lana egiteagatik, zaintza lan horiek ordainsari publiko bat jasotzea, sektore estrategiko bat garen heinean.
- Baserriarren lana balorizatu, bukolismotik atera.
- Elikaduraren gizarte segurantza proposatzen dugu, kolektibo zaugarrietatik hasiz, gizarte guztiaren elikadura bermatzeko. *(Hau gehiago garatu behar da)*

3. ZAINZTA EREDU EMANTZIPATZAILEAK

- Agroekologia da gure bidea, Elikadura Brujabetza helburua.
 - Antolakuntza eredu komunitarioa berreskuratu baserrietan.
 - Elikadura sistema merkatuaren logikatik atera.
 - Elikaduaren kate globala suntsitu.
 - Nekazal lurren espekulazioa eten eta lur publikoen sarea sortu.
-